



KALIFIKAZIOEN INGURUKO ERREKLAMAZIOEI BURUZKOAK

. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.

2. Horretarako dagokion irakasleari aditzera emango zaio. Kontutan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.

.Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta hiru eskola-egun igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertze eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitza, dagokion mintegira aholkua eska diezaiotke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango dira curriculum ofizialaz eta IIPz gain, programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla.

Ebaluazio partzialen aurrean eta azken kalifikazioei buruzko erreklamazioak egitea

1. Ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazioaldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagokion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikularen azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.

2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, dagokion mintegiak esku-hartzea eska dezakete. Mintegiak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita mintegian erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz –erreklamazioa egin den modu berean– erantzungo dio.

3. Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.

2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita



elgoibar **ikastola**

Pedro Miguel Urruzuno Koop.



ikasleak edo erreklamatzailleak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.

3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

-Azken ebaluazioetako Erreklamazioetarako prozedura ikastetxetik kanpoko organoen aurrean.

– Behin erreklamazioak ikastetxean ebatzita, ikasleek, haien guraso edo legezko tutoreek eta irakasleek, ados ez badaude, erreklamazio idatzia aurkeztu ahal izango dute Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, 7 egun naturaleko epean. Erreklamazio-idazkia ikastetxeko zuzendaritzaren bitartez aurkeztuko da.